hamabost egun horiez gain beste zortzi ere izango dituzte egoki deritzeten erreklamazioak eta iradokizunak aurkezteko.

Agurain, 2003ko uztailaren 28a.– Batzordeko lehendakaria, IGNACIO Mª BERAZA ZUFIAUR.

anuncio en el BOLETÍN OFICIAL del Territorio Histórico de Álava, durante los cuales y ocho más podrán los interesados presentar las reclamaciones, reparos u observaciones que estimen pertinentes ante la mencionada Comisión.

En Agurain, a 28 de julio de 2003.– El Presidente de la Comisión, IGNACIO Mª BERAZA ZUFIAUR.

AGURAIN

5.023

Ediktua

Ondasun Higiezinen gaineko Zergari buruzko Foru Aginduak 21 artikuluan araututakoa betez, Landa eta Hiri Ondasun Higiezinen gaineko Zerga ordaindu behar dutenen erroldak, 2003koak, hamabost egun baliodun jarriko dira jendaurrean udaletxeko idazkaritzan, iragarki hau Arabako Lurralde Historikoaren ALDIZKARI OFIZIALean argitaratu eta hurrengo egun baliodunetik aurrera, interesdun orok aztertu eta egoki deritzen erreklamazioak aurkeztu ahal izan ditzan.

Eta hala egiten dut, dagozkion ondorioak izan ditzan.

Agurain, 2003ko uztailaren 22a.– Alkatea, IGNACIO Mª BERAZA ZUFIAUR.

SALVATIERRA

5.023

Edicto

En cumplimiento de lo dispuesto en el artículo 21-2º de la Norma Foral del Impuesto de Bienes Inmuebles, quedan expuestos al público en Secretaría Municipal durante el plazo de quince días hábiles, contados a partir del siguiente, también hábil, al de la publicación de este anuncio en el BOLETÍN OFICIAL del Territorio Histórico de Álava, los Padrones del Impuesto sobre Bienes Inmuebles de naturaleza Rústica y Urbana, correspondientes al ejercicio de 2003, a los efectos de que durante dicho plazo puedan ser examinados y presentarse las reclamaciones que se consideren oportunas.

Lo que traslado a los oportunos efectos.

Agurain, a 22 de julio de 2003.– El Alcalde, IGNACIO MARÍA BERAZA ZUFIAUR.

DONEMILIAGA

5.071

Ediktua

Zarama biltzen duen zerbitzuarengatik tasa ordaindu behar dutenen errolda, 2003koa, egin da. Hori dela eta, errolda hori hamabost egun baliodun egongo dira jendaurrean iragarki hau Arabako Lurralde Historikoaren ALDIZKARI OFIZIALean argitaratu eta hurrengo egun baliodunetik aurrera, interesdun orok aztertu eta egoki deritzen erreklamazioak edo iradokizunak aurkeztu ahal izan ditzan.

Erdoñana, 2003ko uztailaren 29a.– Alkatea, Mª CARMEN LIÑARES FILLOY.

SAN MILLÁN

5.071

Edicto

Confeccionado el Padrón de la Tasa de Basuras, correspondiente al ejercicio de 2003, queda expuesto al público en Secretaría Municipal, durante el plazo de quince días hábiles, a contar del siguiente día hábil, al de la publicación del presente Edicto en el BOLETÍN OFICIAL del Territorio Histórico de Álava, a efectos de que todos aquellos interesados puedan presentar contra los mismos las reclamaciones u observaciones que estimen pertinentes.

Ordoñana, a 29 de julio de 2003.– La Alcaldesa, Mª CARMEN LIÑARES FILLOY.

VALDEGOVÍA

5.027

Arabako Foru Aldundiari Espejon duen lurzati bat doan uztako eskaera.

Toki Erakundeen Ondasunei buruzko Araudiak, ekainaren 13ko 1372/1976 Errege Dekretuak onartutakoak, 110. artikuluan xedatutakoarekin bat, iragarki hau Arabako Lurralde Historikoaren ALDIZKARI OFIZIALean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera hamabost egun baliodun egongo da ikusgai udaletxeko idazkaritzan 2003ko ekainaren 27ko udalbatzaren erabaki baten bidez hasitako espedientea. Espediente horrek Arabako Foru Aldundiari Espejoko 101-131-76 katastro zenbakiko lurzatia doan uztea du helburu.

Valdegovía, 2003ko uztailaren 22a.– Alkate-lehendakaria, FRANCISCO JAVIER UNANUA PASCUAL.

VALDEGOVÍA

5.027

Cesión gratuita de parcela ubicada en Espejo a la Diputación Foral de Álava.

De conformidad con lo establecido en el artículo 110 del Reglamento de Bienes de las Entidades Locales, aprobado por R.D. 1372/1976, de 13 de junio, durante el plazo de quince dÍas hábiles contados a partir del siguiente al de la publicación del presente anuncio en el BOLETÍN OFICIAL del Territorio Histórico de Álava, queda expuesto al público en la Secretaría Municipal el expediente incoado por acuerdo plenario recaído con fecha 27 de junio de 2003, para proceder a la cesión gratuita de la parcela de referencia catastral 101-131-76 ubicada en la localidad de Espejo, a la Excma. Diputación Foral de Álava.

En Valdegovía, a 22 de julio de 2003.– El Alcalde-Presidente, FRANCISCO JAVIER UNANUA PASCUAL.

HARANA

4.919

Etxeak edateko urez hornitzeagatik ordaindu beharreko tasa arautzen duen zerga ordenantzari behin betiko onespena ematen zaio, jendaurrean egon den bitartean ez baitzaio inolako erreklamaziorik aurkeztu. Horrela bada, indarreko legeriari jarraituz, oso-osorik ematen da argitara indarrean sar dadin.

Harana, 2003ko apirilaren 22a.– Alkate-lehendakaria, RAFAEL GÓMEZ DE SEGURA ARRÓNIZ.

VALLE DE ARANA

4.919

No habiéndose presentado reclamaciones contra la Ordenanza Fiscal Reguladora de la Tasa por Suministro de Agua Potable, durante el período de su exposición al público, la citada Ordenanza queda definitivamente aprobada. Por lo que, a efectos de lo establecido en la legislación vigente, se lleva a cabo su publicación íntegra para su entrada en vigor.

En Valle de Arana, a 22 de abril de 2003.– El Alcalde-Presidente, RAFAEL GÓMEZ DE SEGURA ARRÓNIZ

Eranskina

Edateko urez hornitzeagatik ordaindu beharreko tasa arautzen duen Zerga Ordenantza

I. XEDAPEN OROKORRA

1. artikulua.- Udal honek ordenantza honetan ezarritakoaren arabera ezartzen eta eskatzen du etxeak edateko urez hornitzeagatik ordaindu beharreko tasa; Arabako Lurralde Historikoko Toki Ogasunak arautzen dituen Foru Arauan aurrikusten denarekin bat etorriz egiten du hori. Zerga-ordenantza horretako zatia da tarifa aplikagarriak jasotzen dituen eranskina ere.

II. ZERGA ORDAINTZEKO BETEBEHARRA

2. artikulua.- Instalazio eta zerbitzuak erabiltzen dituztenak daude beharturik zerga ordaintzera.

III. ZERBITZUA

3. artikulua.- Erabiltzaile edo abonatuen eta toki administrazioaren arteko harremanak ekonomia eta administrazio erako harremanak izango dira, zerbitzua eskaintzeko hautatutako kudeaketa-modua edozein dela ere eta herritarren beharrak asetzeko erabiltzen dituen langileak eta instalazioak zerbitzura atxikitzeko era zeinahi delarik ere.

4. artikulua.- Udalak zerbitzua antolatuko du, antolamenduari buruzko informazioa argitaratuko du, eta bertako langileei kredentzialak emango dizkie, erabiltzaile guztiek ezagut ditzaten eta bermea izan dezaten. Zerbitzuaren obrak eta instalazioak jabego publikoko ondasunak dira, eta Udalari dagokio ondasun horiek gehitzea, beti ere zerbitzuaren ur emaria gehitzeko eta bere kalitatea hobetzeko xedea izango duten inbertsio-planen bitartez.

5. artikulua.- Irabazteko xedea erabat bazterturik dago horrelako zerbitzuan, eta aurrekontua orekaturik mantendu beharko da tarifa beregainak aplikatuz.

IV. HORNIDURA

6. artikulua.- Edateko uraren hornidura leku hauetara egingo da:

1.- Herriguneetara

2.- Herrigunetik kanpo kokatuta dauden industria, instalazio eta eraikinetara.

7. artikulua.- Udalak abonatuarekin batera zehaztuko du zein izango den horniduraren gutxieneko emaria, instalazioaren neurriak zein ezaugarriak eta kontadorearen ahalmena.Horretarako kontuan hartuko ditu hornitu beharreko higiezinaren, lokalaren edo bulegoaren ezaugarriak.

8. artikulua.- Erabiltzaileak ezingo du ur-horniduraren xedea aldatu, Udalak berariaz horretarako baimena ematen ez badio. Halaber, erabiltzaileak ezingo du instalazioaren ezaugarriak nabarmen aldatu, ez eta kontadorea bera aldatu edo beste batez ordeztu ere.

V. HORNIDURA POLIZAK

9. artikulua.- Edateko Urez hornitzeko Zerbitzua erabili nahi duen pertsona edo erakunde orok dagokion hornidura-poliza bete beharko du. Horrekin batera finkaren jabearen baimena aurkeztuko du, .jabea eta eskatzailea pertsona bera ez denean

10. artikulua.- Ez da inolako horniketarik egingo uraren erabiltzaileak hornidura-poliza berria izenpetu ez badute.

11. artikulua.- Abonatu-poliza denbora mugagaberako sinatuko da, eta erabiltzaileak hornidura-kontratua bukatu nahi badu, nahi hori zerbitzuan baja eman baino hilabete lehenago adierazi beharko du nahitaez.

Zerbitzuan baja eman ondoren hornidurari berriro ekin nahi bazaio, hornidura-poliza berri bat sinatu beharko da.

12. artikulua.- Zerbitzua ez dago beharturik urez hornitzera, ura nekazaritzako, lore-hazkuntzako eta lorategi edo zuhaiztietako ustiategietan erabiltzeko bada. Zerbitzuak ur-emari handia duenean bakarrik baimen litezke abonatu-poliza horiek.

13. artikulua.- Ur-horniketa ondorengo egoeretan eten daiteke:

1. Zerbitzuko instalazioetan matxuraren bat gertatzean, eta ondorioz, hornidurarik eskaini ezin denean.

Anexo

Ordenanza Fiscal reguladora de la tasa por suministro de agua potable

I. DISPOSICIÓN GENERAL

Artículo 1.- Este Ayuntamiento, de acuerdo con lo previsto en la Norma Foral reguladora de las Haciendas Locales del Territorio Histórico de Álava, establece y exige la tasa por suministro de agua potable con arreglo a la presente Ordenanza, de la que es parte integrante el Anexo en el que se contienen las tarifas aplicables.

II. OBLIGACION DE CONTRIBUIR

Artículo 2.- Están obligados a contribuir quienes utilicen los aprovechamientos de instalaciones y servicios propiedad del Ayuntamiento.

III. DEL SERVICIO

Artículo 3.- Las relaciones entre los usuarios o abonados y el Ayuntamiento tendrán carácter económico-administrativo, cualquiera que sea la forma de gestión del Servicio que se escoja para la prestación del mismo, y con independencia de la fórmula de adscripción del personal y de las instalaciones que la misma utilice para satisfacer las necesidades de la población.

Artículo 4.- El Ayuntamiento organizará el Servicio y dará publicidad a la organización del mismo para conocimiento y garantía de todos los usuarios. Las obras e instalaciones del Servicio son bienes de dominio público, correspondiendo al Ayuntamiento el incremento de estos bienes mediante planes de inversiones que tiendan en todo momento a aumentar el caudal de las aguas destinadas al Servicio y a perfeccionar la calidad de las mismas.

Artículo 5.- Queda excluido el ánimo de lucro en la prestación del Servicio, debiendo mantenerse el equilibrio presupuestario mediante la aplicación de tarifas autosuficientes.

IV. DEL SUMINISTRO

Artículo 6.- Las formas que se establecen para el suministro de agua potable son:

1.- Abastecimiento a núcleos de población

2. Abastecimiento a industrias, instalaciones y edificaciones ubicadas fuera de los núcleos de población.

Artículo 7.- El Ayuntamiento fijará conjuntamente con el abonado, teniendo en cuenta las condiciones del inmueble, local o dependencia que deba abastecer, el caudal mínimo que regirá el suministro, así como las dimensiones y características de la instalación y la capacidad del contador.

Artículo 8.- El usuario no podrá cambiar el destino del agua suministrada sin la autorización expresa del Ayuntamiento. Tampoco podrá el usuario variar sustancialmente las características de la instalación ni cambiar o sustituir por su cuenta el contador.

V. DE LAS PÓLIZAS DE SUMINISTRO

Artículo 9.- Toda persona o entidad que desee hacer uso del Servicio de Suministro de Agua Potable deberá cumplimentar la correspondiente póliza de suministro. Acompañarán autorización por escrito, del propietario de la finca, caso que éste fuese distinto del peticionario.

Artículo 10.- No se llevará a cabo ningún suministro sin que el usuario de agua haya suscrito la correspondiente póliza de suministro.

Artículo 11.- La póliza de abonado se suscribirá por tiempo indefinido, viniendo obligado el usuario a comunicar su deseo de dar por terminado el contrato de suministro con un mes de antelación a la fecha en que haya de causar baja en el Servicio.

La reanudación del suministro después de haber causado baja en el Servicio sólo podrá efectuarse mediante la suscripción de una nueva póliza de suministro.

Artículo 12.- El Ayuntamiento no está obligado a suministrar agua para fines agrícolas, ni siquiera para las explotaciones de floricultura, jardinería o arbolado. Únicamente en el caso de que el Servicio dispusiera de los grandes caudales necesarios para este tipo de suministro, podrían autorizarse dichas pólizas de suministro.

Artículo 13.- El suministro de agua potable podrá interrumpirse en los siguientes casos:

1. Avería en cualquiera de las instalaciones del Servicio, que haga imposible el suministro.

2. Ur-emaria galtzean edo jaistean, eta ondorioz, ur-hornidura, -pilaketa edo -presioa nahikoa ez dagoenean.

3. Biztanleria gehitzean, eta ondorioz, dauden hornidurak eta kontsumo beharren artean desoreka sortzen denean, harik eta hornidura horiek gehitu arte.

4. Horniduraren ezaugarriak eta baldintzak hobetzeko behar diren obrak egitean edo instalazioak konpondu edo hobetzean.

14. artikulua.- Udalak ur-mozketak edo ur-murrizketak egin behar baditu, ur-mozketak iraungo duen denboraren berri emango die ahalik eta azkarren abonatu guztiei. Kasu bakoitzaren larrialdia ikusita, egoki iritzitako hedapen-mota erabiliko du ur-mozketa edo ur-murrizketa hori iragartzeko. Zerbitzuak ur-mozketa edo ur-murrizketa guztiak aldez aurretik jakinarazi behar ditu. Egoera larrietan edo ezinbestean bakarrik egin ditzake ur-mozketak aldez aurretik ezer jakinarazi gabe, matxuraren berri jakin bezain laster. Baina ahalik eta azkarren jakinaraziko du, mozketa zergatik egin den eta zenbat iraungo duen azalduz.

VI. HARTUNEAK

15. artikulua.- Hartunea da ura Udalaren instalaziotik hornitu nahi den lekura eramaten duen adarra. Adar hori hodi eroale bat da, hornitu beharreko ur-kopuruaren arabera halako edo bestelako ezaugarriak dituena. Hartune berarekin hornidura bat baino gehiago egin daiteke onibar berean.

16. artikulua.- Erabiltzaileak ordainduko du adar edo hartunea instalatzea, mantentze-lanak egitea eta erabiltzea; Udalaren ikuskatze teknikoaren pean egingo dira lan horiek.

Banaketa-sarerik gabeko zonetan eraikinak egiten direnean, eta Udalak obrak egiteko baimena eman badu, sare berria eskatzaileak ordaintzeko eska daiteke; Udalak ikuskatu beharko ditu sarea egiteko lan horiek.

Hartune guztiek erregistro-giltza bana izango dute bide publikoan, eta zerbitzuak baino ezin izango du erabili; abonatu, jabe eta hirugarren pertsonek ez dute giltza hori erabiltzerik izango. Higiezinetako fatxadan ura ixteko giltza jarriko da, “irekita” edo “itxita” posizioetan prezintaturik egongo delarik. Giltza hori erabiltzea debekatuta egongo da, instalazio barruan matxura dagoenean ez bada. Prezintoak matxuratu badira zerbitzuari jakinaraziko zaio berehala, bestela ordenantza honek eta gainontzeko indarreko xedapenek ezarritakoaren arabera erantzun beharko baita.

VII. KONTADOREAK

17. artikulua.- Edateko ur horniduraren kontadoreak alde publikoan paratuko dira. Salbuespenez Udalak kontadorea zona publikoan ezin dela paratu uste duenean, zona pribatuan jarri ahal izango dira, jabeak finkara sartzeko baimena eta hornidura-poliza sinatu behar duela.

Ixteko bi giltzaren artean jarriko dira kontadoreak, matxuratzen direnean inolako oztoporik gabe kendu eta berriro jarri ahal izan daitezen. Kontadoretik abiatuta, ura zuzenean eroango da abonatuaren instalazioetara. Debekaturik dago kontadore bera abonatu batek baino gehiagok erabiltzea.

18. artikulua.- Abonatuaren polizan adierazitako kontsumoa kontuan hartuta erabakiko du Udalak nolako kontadorea erabili behar duen erabiltzaileak, zer diametro izango duen eta non kokatu behar den. Benetako kontsumoa eta adierazitakoa bat ez badatoz, Udalak kontadore egoki bat jartzeko aginduko dio abonaturari, eta erabiltzaileak ordainduko du hori.

Kontadore guztiak legez onetsitako sistemak izan beharko dute eta Industriako Probintzia Ordezkaritzak ofizialki egiaztatu beharko ditu instalatu aurretik. Instalatuta daudenean, erabiltzailearen jabetzakoak izan arren, zerbitzuko langileek baino ezingo dituzte manipulatu; horretarako, dagokion zigilua ezarriko zaie jartzen diren bakoitzean.

19. artikulua.- Kontadorea ongi mantendu beharko da, kontserbazio- eta funtzionamendu- baldintza onetan, eta udalak beharrezko iritzitako ikuskapenak egin ditzake, bai eta behar diren konponketak egin ere; orobat, matxura konpondu ezin denean, erabiltzailea kontadore berria jartzera behar dezake.

20. artikulua.- Kontadorea abonatuarena izango da, baina Udalaren zuzendaritza teknikoaren pean ezarriko da instalazioa. Matxuratzen denean, hura eskuetan erabili eta konpontzea, udalaren esku izango da bakarrik, eta abonatuaren kontura izango da konponketa.

2. Pérdida o disminución del caudal disponible que provoque insuficiencia en la dotación, acumulación o presión del agua.

3. Aumento de la población que ocasione desequilibrio entre las dotaciones existentes y las necesidades del consumo, mientras se proceda al aumento de dichas dotaciones.

4. Ejecución de obras o reparación o mejora de las instalaciones que sean necesarias para la perfección de las condiciones del propio suministro.

Artículo 14.- El Ayuntamiento comunicará por un medio de rápida y eficaz difusión que estime oportuno, según la urgencia de cada caso, la inmediata interrupción y el horario para las restricciones que se impongan a los abonados a quienes afecten las vicisitudes del Servicio. Sólo en casos de reconocida urgencia o fuerza mayor podrá prescindir de esta obligación de preaviso desde el momento en que el propio Servicio tenga conocimiento de la anomalía de que se trata, si bien deberá hacerlo a posteriori, dando cuenta de los motivos y la previsible duración del corte del suministro.

VI. DE LAS ACOMETIDAS

Artículo 15.- Se entiende por acometida el ramal que partiendo de las instalaciones del Ayuntamiento conduzca el agua al destino del abastecimiento. Este ramal estará formado por un tubo conductor de características específicas según el volumen de agua a suministrar, pudiendo efectuarse múltiples suministros a una misma finca con una sola acometida.

Artículo 16.- La instalación, conservación y manejo de los ramales o acometidas serán por cuenta de los usuarios y se realizarán siempre bajo la inspección técnica del Ayuntamiento.

Cuando se realicen construcciones en zonas que no exista red de distribución, la nueva red, caso de que el Ayuntamiento haya autorizado las obras, será a cargo del peticionario, debiendo estar construida bajo inspección técnica del Ayuntamiento.

Todas las acometidas tendrán en la vía pública una llave de registro, que se manejará exclusivamente por el Servicio, sin que los abonados, propietarios o terceras personas puedan manipular dicha llave. En la fachada del inmuebles se instalará una llave de paso, la cual será precintada en cualquiera de sus posiciones de “abierta” o “cerrada”, quedando igualmente prohibido su manejo, salvo en los casos de avería en el interior de las instalaciones, dándose inmediatamente cuenta al Servicio de la rotura de los precintos, incurriendo en caso contrario en las responsabilidades derivadas de esta Ordenanza y demás disposiciones vigentes.

VII. DE LOS CONTADORES

Artículo 17.- Los contadores del suministro de agua potable estarán colocados en terreno público. Excepcionalmente, en aquellos supuestos en los que a juicio del Ayuntamiento resulte imposible la colocación del contador en terreno público, podrá instalarse en terreno particular debiendo, el propietario, firmar la autorización de entrada a la finca junto con la póliza de suministro.

Los contadores irán colocados entre dos llaves de paso, a fin de que puedan ser retirados con toda facilidad y vueltos a colocar cuando fuere necesario. A partir del contador, la conducción llevará directamente a las instalaciones del abonado, quedando terminantemente prohibido el uso del contador por más de un abonado.

Artículo 18.- El Ayuntamiento fijará el tipo de contador que el abonado deba utilizar, su diámetro y emplazamiento, según el consumo declarado por el abonado en la póliza. Si el consumo real no correspondiese al declarado, el Ayuntamiento podrá exigir al abonado el cambio de contador adecuado, a costa del usuario.

Todos los contadores habrán de ser de sistemas legalmente aprobados y serán verificados oficialmente por la Delegación Provincial de Industria antes de su instalación. Una vez instalados, aún siendo propiedad del usuario, no podrá ser manipulado más que por los empleados del Servicio, a cuyos efectos serán debidamente precintados cuantas veces se proceda a su colocación.

Artículo 19.- El contador deberá mantenerse en buenas condiciones de conservación y funcionamiento, pudiendo el Ayuntamiento someterlo a cuantas verificaciones considere necesarias y efectuar en él las reparaciones que procedan, así como obligar al usuario a su sustitución en caso de avería irreparable.

Artículo 20.- El contador será propiedad del abonado, su instalación se realizará bajo la dirección técnica del Ayuntamiento y su manejo y reparación, en caso de avería, será competencia exclusiva del Ayuntamiento, con cargo al abonado.

21. artikulua.- Iruzurra egingo da, ura kontadoretik pasa ez dadin edo benetako kontsumoa adieraz ez dezan abonatuak edo udalaren baimena ez dutenek kontadorea, hartunea edo instalazioak manipulatzen dituztenean.

22. artikulua.- Kontadoretik abiatuta, abonatuak nahi duen eran bana dezake ura bere erabilerarako, eta nahi duen eran egin horretarako lanak. Hala ere, Udalak onespena eman beharko dio instalazioari, hornidura behar bezala egingo dela bermatzeko.

Zerbitzuak ikuskatuko du abonatuaren barne-banaketa, ongi eginda dagoela egiaztatzeko eta kontratatutako horniduran inolako iruzurrik edo akatsik izan ez dadin.

23. artikulua.- Guztiz debekatuta dago:

- Ezin izango dira beste hornidura-poliza bateko instalazioak uztartu.

- Ezin izango da, Udalaren ustez garantia tekniko edo sanitariorik ez duen beste ur batzuekin nahasi.

24. artikulua.- Depositu hartzaileak, doitzaileak edo erreserbakoak jar ditzake abonatuak. Horiek txukun, garbi eta desinfektaturik mantendu beharko ditu erabiltzaileak, eta depositu horiek direla kausa sor daitezkeen kutsaduren erantzule izango da. Gainera, beharrezko sistema automatikoak izango dituzte, ur-jarioak saihesteko. Nahiz eta ur hori kontadorean erregistraturik egon, ardura hori ez bada hartzen, zerbitzua galarazten dela pentsatuko da.

Halaber, presio-ekipoak edo bestelako tresna teknikoak jar daitezke, hartune baten zerbitzuez baliatzen diren hainbat abonaturen edo barne-instalazio bereko zati ezberdinen kontsumo aukerak orekatzeko.

Aparatu tekniko horiek eraikinetan beharrezkoak izango dira, altuera edo beste aparteko arrazoiren bat dela-medio edateko uraren hornidura egokirik bermatuta ez dagoenean.

VIII. KONTSUMOA

25. artikulua.- Abonatuak hornidura-polizan eta hornidurari buruz ordenantza honetan ezarritako baldintzak errespetatuko ditu ura kontsumitzerakoan.

26. artikulua.- Benetako kontsumoa, kontadoreak adierazitakoa izango da. Benetako kontsumoa arauzko minimoa baino txikiagoa denean, minimo hori kontsumitu egin dela ulertuko da, kontadoreak markatzen duen kontsumoa edozein dela ere.

27. artikulua.- Matxuragatik edo gaizki dabilelako, kontadoreak ez badu benetako kontsumoa zenbatekoa den adierazten, aurreko urtean aldi berbereko ordainagiriari zegokion ur-emaria kontsumitu dela ulertuko da, eta horrelakorik ezean, azken hiru ordainagirietakoa, batez beste. Oro har, benetan kontsumitu dena zenbatesteko ahalegina egingo da, baina azaldutako sistema hori salbuespena da, aldi baterako balio duena, eta Udalari dagokio kontadorea ahalik eta azkarren ordezkatzea, eta erabiltzaileari antzemandako gorabeherak zerbitzuari jakinaraztea.

28. artikulua.- Erabiltzailea kontadorean erregistratutako kontsumoarekin ados ez badago, udalak Industria Ordezkaritzari kontadorea berrikusi eta egiaztatzeko eskatuko dio; abonatuak ordainduko ditu gastuak.

X. TARIFAK

29.artikulua.- Udalak abonatu bakoitzak kontsumitutakoa fakturatuko du, agintariek une bakoitzean onartzen dituzten legezko tarifak zehatz-mehatz aplikatuz.

30. artikulua.- Ur-kontsumoa edozein dela ere, udalak dagozkion tasak eta prezioak fakturatuko dizkio abonatuari, ondorengo lanak egiteagatik: kontadoreak kontserbatzea, hartuneak egiteko lanak burutzea, instalazioak ikuskatzea, bide publikoan obrak egitea, lotura-eskubidea eta tarifa izeneko idazpuru orokorraren barruan agintariek baimendutako beste edozein lan.

31. artikulua.- Eranskinean ageri dira Tasen tarifa horiek.

32. artikulua.- Urte bat baino gutxiagoko epean aurkeztuko zaio hornidura-faktura abonatuari. Epe horiek udalak ezarriko ditu.

Artículo 21.- Constituirá defraudación cualquier manipulación que se efectúe por el abonado o personas no autorizadas por el Ayuntamiento, en el contador, en la acometida o en las instalaciones conducentes a evitar que el agua pase por el contador o que éste marque con exactitud el consumo efectuado.

Artículo 22.- A partir del contador, el abonado podrá distribuir las aguas para su uso y ejecutar los trabajos libremente, aun cuando el Ayuntamiento deberá dar su conformidad a la instalación para garantizar la perfección del suministro.

La distribución interior del abonado estará sometida a la inspección del Servicio, a fin de verificar en todo momento la corrección de la misma y evitar defraudaciones y deficiencias en el suministro contratado.

Artículo 23.- Queda expresamente prohibido:

- empalmar instalaciones que procedan de diferentes pólizas de suministro;

- mezclar el agua de las instalaciones del Ayuntamiento con otra que no tenga garantía técnica ni sanitaria, a juicio del propio Ayuntamiento.

Artículo 24.- El usuario podrá instalar depósitos receptores, reguladores o de reserva. Estos depósitos deberán mantenerse cuidadosamente limpios y desinfectados, respondiendo de las posibles contaminaciones causadas por dichos depósitos. Igualmente, deberán estar dotados de los sistemas automáticos necesarios para evitar las pérdidas de aguas, aunque dicha agua haya sido registrada por el contador, considerándose la falta de cuidado en este aspecto como perturbación del Servicio.

También podrán instalarse grupos de presión o cualquier otro artículo técnico que tenga por objeto equilibrar las posibilidades de consumo a diferentes abonados servidos por una misma acometida, o a las diferentes partes de una instalación interior.

Estos aparatos técnicos serán obligatorios en aquellos casos en los que por altura u otras circunstancias excepcionales no pueda garantizarse el suministro correcto del agua potable.

VIII. DEL CONSUMO

Artículo 25.- El abonado consumirá el agua potable de acuerdo con las condiciones establecidas en la póliza de suministro y con todo lo que se especifique en esta Ordenanza respecto a las características del suministro.

Artículo 26.- Se entenderá por consumo efectuado el registrado por el contador; cuando el consumo registrado sea inferior al mínimo establecido, se entenderá consumido dicho mínimo, con independencia de lo que marque el contador.

Artículo 27.- Si por avería o mal funcionamiento del contador no pudiera conocerse con exactitud el consumo efectuado, se entenderá consumido el mismo caudal que corresponde al recibo equivalente al año anterior, y, en su defecto, por el promedio de los tres recibos anteriores. En general se efectuará la estimación más ajustada a la realidad, pero este sistema tendrá carácter excepcional, meramente transitorio, correspondiendo al Ayuntamiento ordenar la sustitución del contador con la debida rapidez y al usuario denunciar inmediatamente al Servicio las anomalías observadas.

Artículo 28.- En el caso de disconformidad sobre el consumo registrado por el contador, el Ayuntamiento solicitará la revisión del mismo y su verificación por la Delegación de Industria, siendo los gastos de cuenta del usuario.

X. DE LAS TARIFAS

Artículo 29.- El consumo efectuado por cada abonado será facturado por el Ayuntamiento aplicando estrictamente las tarifas aprobadas en cada momento.

Artículo 30.- Independientemente del agua consumida, el Ayuntamiento facturará también al abonado el importe de las tasas y precios que correspondan por la conservación de contadores, ejecución de acometidas, verificación de instalaciones, obras en la vía pública, derechos de empalme y cualquiera otros autorizados dentro del epígrafe general denominado tarifas.

Artículo 31.- Las tarifas de estas tasas son las que figuran en el Anexo.

Artículo 32.- La facturación del importe del suministro al abonado se efectuará por períodos no superiores al año natural y que serán establecidos por el Ayuntamiento.

33. artikulua.- Abonatuak ordainduko ditu bai hornidura poliza dela-eta bai poliza horren pean egiten den kontsumoa dela-eta sortutako edozein zerga edo kontribuzioren gastu guztiak. Era berean, abonatuak ordaindu beharko ditu eskritura publikoaren gastuak, udalaren kopia kautotua barne, abonatuak hala egiteko eskatzen badu.

34. artikulua.- Abonatuak behar bezala erabili beharko ditu hala bere instalazioak nola udalarenak, beste erabiltzaileei kalterik eragin gabe.

35. artikulua.- Herriko ur-hornidurako edateko ura erabiltzean arau-hauste larria eginez gero, berehala deuseztatuko da hornidura-poliza, eta ur-hornidura moztu egingo da. Kontuan hartu behar da, gainera, egintza horien bidez toki-ogasunari iruzur egin dakiokeela.

36. artikulua.- Aurreko artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako, arau-hauste larritzat joko dira ondoko egintza hauek:

1.- Hitzartutako horniduraz abusatzea, inolako arrazoi justifikaturik gabe abonatuaren ohiko jarduerari dagokionaren gainetik neurriz kanpo kontsumituz. Ez da arrazoi justifikatutzat hartuko abonatuaren instalazioetan matxura edo jarioa izateagatik neurriz kanpoko kontsumoa gertatzea.

2.- Erabilera txarrekin horniduraren erregulartasuna eragoztea, batez ere hornidura murriztuen edo mugatuen garaian beste erabiltzaile batzuei urez hornitzea eragozten zaienean.

3.- Ura hitzartutakoak ez diren erabileretarako baliatzea.

4.- Zerbitzuaren baimenik gabe ura hirugarren batzuei ematea, dela doan edo diru-truke.

5.- Zerbitzutik hartutako ura beste aprobetxamendu batzuetatik hartutakoarekin nahastea.

6.- Abonatuaren instalazioak, hartuneak edo kontadoreak dauden tokira langileei sartzen ez uztea.

7.- Ixteko giltzak inolako arrazoi justifikaturik gabe ireki edo ixtea, ixteko giltzak zigilaturik egon ala ez.

8.- Benetan kontsumitu den emaria kontadoreetan erregistratu ez dadin, instalazioak manipulatzea.

9.- Kontsumitutako urari dagokion zenbatekoa edo edateko urari dagozkion eskubide eta tasak ordaintzeari uko egitea, inolako arrazoi justifikaturik gabe. Halakotzat joko da ordainketan hiru hilabete baino gehiago berandutzea.

37. artikulua.- Aurreko artikuluan azaldutako larritasunik ez duten egintzak edo ez egiteak udalak zigortuko ditu, indarrean dagoen legedian baimendutako zenbatekoetako isunak ezarriz.

38. artikulua.- Iruzur egiten denean, espedientea irekiko da, eta toki-administrazioaren xedapenen arabera izapidetuko.

Delitu diren egintzak, hala nola zigiluak haustea, instalazioak haustea, urak kutsatzea eta kode penalean zehazten diren beste guztiak, jurisdikzio arruntean salatuko dira.

39. artikulua.- Indarrean dagoen legedian ezarritako premiamendu prozeduran sartuko dira zordunak.

Edateko uraren horniduraren ordainagiriak ordaintzeari uko eginez gero, hornidura moztu egingo da, horri buruz den indarreko legeriarekin bat etorriz.

40. artikulua.- Uraz abusatzeagatik beste batzuei eragiten dizkien kalteen erantzule bakarra abonatua bera izango da.

XII. ALDI BATERAKO XEDAPENAK

Ordenantza hau indarrean sartzen denean indarrean dauden kontratuak ordenantzan jasotzen diren xedapenetara egokituko dira, eta xedapen horiek betetzera beharturik daude erabiltzaileak.

XIII. AZKEN XEDAPENA

Ordenantza hau, bere eranskina barne, adierazten den egunean onetsi zen behin betiko, eta Arabako Lurralde Historikoaren ALDIZKARI OFIZIALean argitara eman ondoren sartuko da indarrean, eta indarrean jarraituko du aldatu edo indargabetzen den arte.

Artículo 33.- Serán por cuenta del abonado todos los gastos e impuestos y contribuciones de cualquier clase devengados, tanto por razón de la póliza de suministro como en ocasión del consumo que bajo la misma se efectúe, incluidos los gastos de escritura pública, si el abonado exigiere su otorgamiento, incluyendo una copia auténtica para el Ayuntamiento.

Artículo 34.- .El abonado está obligado a usar de las instalaciones propias y de las del Ayuntamiento de forma racional y correcta, evitando perjuicios al resto de los usuarios.

Artículo 35.- Toda falta grave cometida en el uso del agua potable del abastecimiento municipal dará lugar a la inmediata rescisión de la póliza de suministro, con interrupción del mismo, sin perjuicio de que los hechos puedan constituir defraudación de la Hacienda Local.

Artículo 36.- A los efectos de lo dispuesto en el artículo anterior, constituirá falta grave la comisión de los siguientes actos:

1. Abusar del suministro concertado, consumiendo caudales desproporcionados con la actividad normal del abonado, sin causa justificada. No será causa justificada la existencia de avería o fuga en las instalaciones del abonado que determine el aumento desproporcionado del consumo.

2. Perturbar la regularidad del suministro mediante usos anormales, cuando en época de restricciones o abastecimientos racionados dichos usos puedan impedir el suministro a otros usuarios

3. Destinar el agua a usos distintos de los contratados.

4. Suministrar agua a terceros sin autorización del Servicio, bien sea gratuitamente o a título oneroso.

5. Mezclar agua del Servicio con las procedentes de otros aprovechamientos.

6. Impedir la entrada del personal al lugar donde estén las instalaciones, acometidas o contadores del abonado.

7. Abrir o cerrar las llaves de paso sin causa justificada, estén o no precintadas.

8. Manipular en las instalaciones con objeto de impedir que los contadores registren el caudal realmente consumido

9. Negativa injustificada a satisfacer el importe del agua consumida o los derechos y tasas relacionados con el consumo del agua potable. Se entenderá negativa injustificada, el retraso del pago superior a tres meses.

Artículo 37.- Los hechos u omisiones que no revistieran la gravedad de los expuestos en el artículo anterior, serán sancionados por el Ayuntamiento con multas de la cuantía que autorice la Legislación vigente.

Artículo 38.- Los hechos que constituyen defraudación darán lugar a un expediente que se tramitará conforme a las disposiciones de Administración Local.

Los hechos que constituyen delito, tales como la rotura de precintos, la destrucción de instalaciones, la contaminación de las aguas y demás especificados en el Código Penal, serán denunciados a la Jurisdicción Ordinaria.

Artículo 39.- Los deudores quedan incursos en el procedimiento de apremio establecido en la Legislación vigente.

En caso de negativa en el abono de los recibos de suministro de agua potable, podrá efectuarse el corte del mismo de acuerdo con lo legislado al respecto.

Artículo 40.- El abonado será el único responsable de los daños y perjuicios que con ocasión del consumo abusivo efectuado pueda producir a terceros.

XII. DISPOSICIONES TRANSITORIAS

Los contratos existentes a la entrada en vigor de esta Ordenanza se adaptarán de oficio a las disposiciones de la misma, quedando los usuarios obligados al cumplimiento de todas sus prescripciones.

XIII. DISPOSICIÓN FINAL

La presente Ordenanza con su Anexo, que fue aprobada definitivamente en la fecha que en éste se indica, entrará en vigor tras su publicación en el BOLETÍN OFICIAL del Territorio Histórico de Álava y seguirá en vigor hasta que se acuerde su modificación o derogación.

XIV. ORDENANTZAREN ERANSKINA

TARIFAK

a) Herriak hornitzea:

Honaino: 200 m³ / hiruhilekoa . . . . . .6,00 €

Hemendik aurrera: 200 m³ / hiruhilekoa . . . . .0,12 €/ m³

b) Industria erabilerak

Minimoa: 20 m³ / hiruhilekoa . . . . . .6,00 €

20 eta 100 m³-ra bitartean/hiruhilekoa . . . . . .0,45 € / m³

Hemendik aurrera: 100 m³ / hiruhilekoa . . . . .0,60 € / m³

c) Beste erabilera batzuk

Minimoa: 20 m³ / hiruhilekoa . . . . . .3,00 €

20 eta 100 m³-ra bitartean/hiruhilekoa . . . . . .0,22 € / m³

Hemendik aurrera: 100 m³ / hiruhilekoa . . . . .0,30 € / m³

d) Hartune berriaren tasa . . . . . .300,00 €

XIV. ANEXO DE LA ORDENANZA

TARIFAS IMPORTE

a) Abastecimiento a núcleos de población:

Hasta 200 m³ / trimestre . . . . . .6,00 €

A partir de 200 m³ / trimestre . . . . . .0,12 €/ m³

b) Usos Industriales

Mínimo 20 m³ / trimestre . . . . . .6,00 €

De 20 a 100 m³ / trimestre . . . . . .0,45 € / m³

Más de 100 m3 / trimestre . . . . . .0,60 € / m³

c) Otros usos

Mínimo 20 m³ / trimestre . . . . . .3,00 €

De 20 a 100 m³ / trimestre . . . . . .0,22 € / m³

Más de 100 m³ / trimestre . . . . . .0,30 € / m³

d) Tasa de nueva acometida . . . . . .300,00 €

HARANA

5.072

Udalbatzak, 2003ko apirilaren 30eko bilkuran, 2003ko ekitaldiko aurrekontu orokorrari hasierako onarpena ematea erabaki zuen.

Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzko martxoaren 25eko 9/91 Foru Arauak 15. artikuluan ezarritakoarekin bat, aurrekontuari buruzko espedientea hamabost egun baliodun izango da jendaurrean iragarki hau Arabako Lurralde Historikoaren ALDIZKARI OFIZIALean argitaratu eta hurrengo egun baliodunetik aurrera. Epe horretan interesdunek espedientea aztertu eta erreklamazioak aurkeztu ahal izango dizkiote udalbatzari.

Adierazitako epean erreklamaziorik aurkeztuko ez balitz, aurrekontua behin betiko onartutzat joko litzateke.

Denek jakin dezaten eta dagozkion ondorioak izan ditzan ematen da aditzera.

Harana, 2003ko maiatzaren 8a.– Alkate-lehendakaria, RAFAEL GÓMEZ DE SEGURA ARRÓNIZ.

VALLE DE ARANA

5.072

El Ayuntamiento Pleno, en sesión ordinaria celebrada el día 30 de abril 2003, acordó la aprobación inicial del Presupuesto General de esta Entidad para el ejercicio económico del año 2003.

De conformidad con lo dispuesto en el artículo 15 de la Norma Foral 9/91, de 25 de marzo, Presupuestaria de las Entidades Locales, dicho expediente queda expuesto al público durante el plazo de quince días hábiles contados a partir del siguiente, también hábil, a la publicación de este anuncio en el BOLETÍN OFICIAL del Territorio Histórico de Álava, durante los cuales los interesados podrán examinarlo y presentar reclamaciones ante el Pleno.

El Presupuesto se considerará definitivamente aprobado si durante el citado plazo no se presentasen reclamaciones.

Lo que se publica para general conocimiento y efectos oportunos.

En Valle de Arana, a 8 de mayo de 2003.– El Alcalde-Presidente, RAFAEL GÓMEZ DE SEGURA ARRÓNIZ.

VITORIA-GASTEIZ

UDALEKO OSASUN ETA KONTSUMO SAILA

5.082

Arriskutsuak izan daitezkeen animaliak edukitzeari buruzko indarreko araudia hausteagatik dosier zigortzaileak abiarazteren berri ematen duen iragarkia.

30/92 Legearen 59.4 eta 61. artikuluetan ezarritakoari jarraituz, jakinarazpena Arabako Lurralde Historikoaren ALDIZKARI OFIZIALeko argitarapenaren bidez egingo da, ezinezkoa gertatu baita dosier zigortzaileak abiarazteko ebazpenak bestela jakinaraztea.

Gizarte Gaietako zinegotzi ordezkariaren ebazpenak tarteko, hamabost eguneko epean, animalia horiek izateko beharrezko baimen administratiboa eskatu beharra zutela jakinarazi zitzaien arriskutsuak izan daitezkeen animalien azpiko jabe horiei.

Abenduaren 23ko 50/99 Legearen 3. artikuluak ezartzen duenez, arriskutsua izan daitekeen animaliaren bat edukitzeko nahitaezkoa izango da administrazioaren baimena lortzea; 6. artikuluak, berriz, animalia horretarako sortzen den erregistroan inskribatu beharko dela agintzen du, eta baimenaren titularrari dagokiola hori egitea. Orobat, gai horretan indarrean dagoen legerian oso arau-hauste larritzat jotzen da arriskutsuak izan daitezkeen txakurrak baimenik gabe edukitzea –aurreikusitako zigorra 2.404,05 eta 15.025,30 euro bitartekoa da– eta arau-hauste larritzat txakurra erregistroan ez inskribatzea –aurreikusitako zigorra 300,51 eta 2.404,05 euro bitartekoa da. Jabeek bi erregistroetan baimena eskatu ez izana konprobatu da.

Ezarritako epean, ez da konprobatutakoa indargabetzen duen alegaziorik, ez baimena eskuratzeko eskaerarik aurkeztu.

VITORIA-GASTEIZ

DEPARTAMENTO MUNICIPAL DE SALUD Y CONSUMO

5.082

Anuncio por el que se notifica la incoación de expedientes sancionadores por infracción de la normativa vigente en materia de tenencia de animales potencialmente peligrosos.

De acuerdo con lo establecido en los arts. 59.4 y 61 de la Ley 30/92, se realizan las notificaciones mediante la publicación en el BOLETÍN OFICIAL del Territorio Histórico de Álava, al haberse intentado sin efecto las comunicaciones de la incoación de los expedientes sancionadores.

Mediante Resoluciones de la Concejala Delegada de Asuntos Sociales, debidamente notificados, se requirió a los propietarios de animales potencialmente peligrosos que al pie se reseñan para que en el plazo de quince dias solicitaran la preceptiva licencia administrativa para la tenencia de animales potencialmente peligrosos.

Todo ello por cuanto el artículo 3 de la ley 50/99, de 23 de diciembre, exige la obtención de una licencia administrativa para la tenencia de cualquier animal calificado como potencialmente peligroso, y el artículo 6 del mismo texto legal obliga a la inscripción del animal en el registro creado al efecto, obligación que incumbe al titular de la licencia. Del mismo modo, la legislación vigente en la materia califica como muy grave la infracción de tener perros potencialmente peligrosos sin licencia, infracción para la que se prevé una sanción de 2.404,05 € a 15.025,30 € y como grave la de omitir la inscripción en el Registro del perro potencialmente peligroso, estableciendo una sanción desde 300,51 a 2.404,05 €, habiéndose comprobado en los correspondientes registros que dichos propietarios no habían solicitado tal licencia.

En el plazo concedido al efecto no se han presentado alegaciones que desvirtúen la realidad de los hechos comprobados, ni la solicitud para obtener la requerida licencia.